# LIBURU PROPOSAMENAK

URRIA




## AFALTZERA ETORRI ZEN KROKODILOA

**0-6 URTE**

Erregosi arkumea eta Otso otsoa lagun minak ziren. Gau batean arrautza handi bat aurkitu zuten. Zer egin galdutako arrautza horrekin pentsatua arte, etxera eramatea erabaki zuten. Halako batean KRAK! Egin zuen arrautzak …




## SUA GUSTUKO EZ ZUEN HERENSUGEA

**0-6 URTE**

Herensuge guztiei izugarri gustatzen zaie hegan egitea eta sua botatzea. Ez dute maite ura. Orduan , zer egingo du herensuge batek ohartzen bada arrain baten moduan egin dezakeela igeri?

## ERRESKATATZAILE MAGIKOAK ETA IRUDIMENIARAKO ATEA

**6-8 URTE**




Marina , Lucas eta Zoek aitona-amonen etxean asteburu lasaia paratzea espero zuten: karta-gazteluak eraiki, ezkutaketan jolastu, ohean kontu-kontari… Pentsatu ere ez zutena zen sukaldeko katazuloaren atzean ezkutuko mundu bat egongo zela erensuge, sorgin eta adarbakarrin!




## HORMAK

**12-16 URTE**

Institutuko sarrerako horman Learen kontrako pintadak idatzita aurkitu sute ikasleak eta ikusi orduko, azpijanean hasi dira guztiak Leak halako mezua jasotzeko zein arrazoi ote zauden jakiteko. Pintadak , halere, ikaskideen artean dauden beste hamaika horma jarriko ditu agerian. Denok ditugu iraintzen gaituzten hormak, esamoldeak eta jarrerak.

**HELDUAK**




## COMO UN SUSPIRO

**GAUR EGUNGO LITERATURA**

Giovannak eta Sergiok gonbidatuak dituzte gaur. Igandero bezala, bere lagunak bazkaltzera eta bazkalondo atsegin batez gozatzera etortzen dira. Baina gaur desberdina izango da. Sarrerakoak zerbitzatzear daudenean, ateko dei batek bere igandeko errutina eteten du. Atarian dama bat dago, iraganean etxe horretan bizi izan dela dioena.

## NIRLIIT

**HELDUAK**




Salluit, Nunavik lurralde zabal eta hotzaren iparraldeko inuit komunitate bat da, dena ederregia edo gogorregia den eskualde bat. Bertako biztanleek indarkeriaz (indarkeria horren biktima nagusiak emakumeak dira), alkoholismoz, drogazaletasunez, suizidioz eta ulertezintasunez zipriztindutako errealitatea bizi dute, eta horretara bultzatu ditu arrazismo instituzionalak eta mendebaldeko usadio eta ohituren inposizioak